

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com


Felix Razkin Mendinueta

*Arbizu,
Nafarroa
(1947)*

Aurkibidea



Biografia



1947an jaio zen Arbizun, etxean bertan. Lau senidetan hirugarrena da bera. Aita bizargina zen, Arbizukoa, baina hamaika lanetan aritutakoa. Zortzi urterekin hasi zen herriko eskolan, eta bederatzi urterekin Oñatira bidali zuten ikastera, agustindarrena fraidegai, osaba bat baitzuen bertan. 1969an Teologia fakultatera joan zen, Gasteizera, beste fraidegai batzuekin batera, Eusebio Osa apaiza taldeburu zutela. Gasteizen euskara irakasten hasi zen, Manuel Iradier taldean eta Pako tabernan. Juan Bautista Gamiz irakasle taldea sortu zuten gero, Gasteizko AEK-ren hazia izango zena. Araotzen (Oñati) egin zuten barnetegian euskara irakasteagatik atxilotu egin zuten. Olabide ikastolaren sorreran ere parte hartu zuen. Hiru lantegitan ibili zen lanean: Tximist, Michelin eta BH. Langile mugimenduan murgildu zen, eta orduko grebak eta 1976ko martxoaren 3ko sarraskia gertutik ezagutu zituen. 38 urte zituela, Euskal Filologia ikasketak egin zituen. Osakidetzako euskara zerbitzuan plaza lortu, eta bertan jubilatzen zen. Arbizuko euskara mantendu du eta hika mintzatzeko ohitura dauka.

Zintak

ARB-038

- **Proiektua:** Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Lizeaga, Irati
- **Data:** 2019-04-09
- **Iraupena:** 96 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Umetan dena euskaraz Arbizun

- **Erref:** ARB-038/003
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Arbizun euskara zen nagusi. 7 urterarte dena euskaraz egiten zuen. 10 urterekin Oñatira bidali zuten, agustindarengana, eta erdararekin lanak izan zituen.

2. Herriko apaiza eta maistra euskaldunak

- **Erref:** ARB-038/005
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:03:19. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Herriko eskolan ibili zen. Maistra Arbizukoa zen eta euskaraz egiten zien, ulertzen ez zutenean. Juan Goikoetxea apaiza ere euskaltzalea zen, eta kartzelara ere eraman zuten horregatik.

3. 10 urterekin diploma eman zioten euskara jakiteagatik

- **Erref:** ARB-038/006
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:07:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

<p>Nafarroan, Principe de Vianako agintariek diploma bana banatu zieten euskaraz egiten zuten ikasleei, 1957an. Euskara maite zuten karlistak ere bazeuden Nafarroan.</p>

4. Aita, ofizio askotan aritutakoa

- **Erref:** ARB-038/008
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:10:06

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Bere aita ofizio askotan ibilitakoa zen: bizargina zen ikasketaz, baina bake-epaile ere ibili zen, eta lantegian zein trenbidean lanean ere bai. "Osatzailea" ere bazen: abereak zikiratzen zituen, eta baita txerriak hil ere.

5. Txerri-hiltzea eta tripotak banatzea

- **Erref:** ARB-038/009
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:10:06. **Bukatu:** 00:12:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Txerri-hiltzea nola izaten zen azaltzen du. "Tripotak" (odolkiak) banatzen zituzten. Gibela aztertzeraz bidali arren, emaitza jakin aurretik jaten zuten.

6. Nolatan joan zen Oñatira, fraidegai

- **Erref:** ARB-038/010
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:12:02. **Bukatu:** 00:15:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Osaba bat zeukan Oñatin, agustindarretan fraide, eta mutiko bila zebiltzan fraidegai izateko. Osaba eskolara joan zenean, berak piper egin zuen, ez zuelako fraidegai joan nahi; baina ikasle argia zela esan zioten osabari. 15 egunerako joan zen Oñatira, probatzera, eta bertan geratu zen. 9 urte zituen, 10 betetzeko.

7. Euskalduna izateagatik burla, Oñatin

- **Erref:** ARB-038/011
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:15:49. **Bukatu:** 00:17:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Gorriak ikasi zituen Oñatin, erdaraz ez zelako moldatzen. Urrestillako beste mutiko bat ere bere antzera zebilen, eta azterketa euskaraz ipini zioten behin. Gaztelaniaz irakurtzeko zaletasuna hartu zuen.

8. Euskararen kontzientzia ere Oñatin hartu zuen

- **Erref:** ARB-038/012
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:20:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Euskararen kontzientzia ere Oñatin hartu zuen. Euskarazko aldizkariak: Erein eta Gure Txokoa; bertan idatzi zuen lehen artikulua. Eusebio Osa aipatzen du. Euskara batua sortu aurreko mugimendua; Osa bileretara joaten zen.

9. Haize berriekin, fraidegai gazteak Oñatitik Gasteizera

- **Erref:** ARB-038/013
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:20:51. **Bukatu:** 00:24:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Osaba oso zorrotza zen, eta zilizioa erabilarazten zien. Vaticanotik haize-berriak iritsi zirenean (II. Kontzilioa), fraidegai gazteek beste bide batzuk hartu zituzten. Oñatiko taldea Gasteizera joan zen. 1968ko grebak. Frantzian zegoen giroa: komunak, asanbladak...

10. Gasteizen, fraidegaiak pisuan elkarrekin

- **Erref:** ARB-038/014
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:25:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Gasteizera joan zirenean, Eusebio Osa zuten buru eta elkarrekin bizi ziren pisu batean. Hark apaiz izateari utzi zion, eta ondoren beraiek ere bai.

11. Euskarazko mezak ematen hasi ziren Gasteizen

- **Erref:** ARB-038/015
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:25:44. **Bukatu:** 00:27:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Langile mugimenduan sartu zen Gasteizen. "Apaiz langileak". Garai hartan, 1967 inguruan, euskarazko mezak ematen hasi ziren Gasteizen; lantegietara lanera joandako euskaldun asko zeudelako. Ez zuten baimenik lortu. Gitarraekin kantatzen zuten elizan.

12. Euskarazko eskolak ematen, Bar Pacon

- **Erref:** ARB-038/016
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:27:42. **Bukatu:** 00:30:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Euskarazko eskolak ematen ere hasi ziren. 20tik 8 inguru hasi ziren euskara irakasten, han eta hemen. Oñatibia apaizaren "método radiofónico) erabiltzen zuten. "Umandi"-ren gramatika ere bazegoen. 3 ikasle talde izan zituen. Manuel Iradier elkartean, Bar Pacon... behin atxilotu egin zuten.

13. Euskara irakasten zuen lehen talde antolatua Gasteizen

- **Erref:** ARB-038/017
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:30:48. **Bukatu:** 00:33:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

"Umandi" euskara irakasten ibili zen aurretik. Peli Presa ere bai... Talde antolatu moduan, beraiek izan ziren lehenengoak. 100dik gora ikasle izan zituzten. Agurainera, Elosura... ere joaten ziren. Euskara batua.

14. Euskara batuaren gorabeherak

- **Erref:** ARB-038/018

- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:33:17. **Bukatu:** 00:34:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara batuaren kontra zeuden batzuk, eta berak ere bazituen zalantzak, baina eskoletan premia zegoen euskara bateratzeko. Bizkaiko ikastetxeetan iskanbilak izan ziren, ez zituztelako batuko formak begi onez ikusten.

15. Izaskun Arrueren ibilerak: ikastola klandestino

- **Erref:** ARB-038/019
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:34:37. **Bukatu:** 00:36:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Izaskun Arrue klaseak ematen zituen bere etxean, 1963tik. Haren ibilbidea kontatzen du. Inguruan zebilen bera ere.

16. Olabide ikastolan ikerlan bat egin zuen

- **Erref:** ARB-038/020
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:36:52. **Bukatu:** 00:39:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Olabide ikastolan ibili zen, karrera egiten ari zen garaian: hitanoari buruzko ikerlana egin ondoren, ikerlan bat egin zuen Olabiden, ikasleek egiturak zein adinekin ikasten zituzten jakiteko.

17. Eusebio Osa eta Olabide ikastola

- **Erref:** ARB-038/021
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:39:21. **Bukatu:** 00:40:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Eusebio Osa Olabide ikastolan ibili zen. Bota egin zuten, haren metodologiarekin ez zetozelako bat.

18. Debaldeko euskarazko eskolak, kirol klubetan ere bai

- **Erref:** ARB-038/022
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:40:53. **Bukatu:** 00:42:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Euskarazko eskolak non ematen zituzten aipatzen du. Club Jabatos eta Club Aquinas. Joseba Azkarraga politikaria eta Enrique Knör izan zituen ikasle gisa. Ez zuten kobratzen.

19. Tximist, Michelin eta BH lantegietan lanean

- **Erref:** ARB-038/023
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:42:29. **Bukatu:** 00:43:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Arabako lantegiak » Arabako Lautadako lantegiak

Laburpena:

Euskarazko eskolak emateaz aparte, lantegian zebilen: lehenengo Tximist pila-lantegian eta Michelinen; bietatik bota zuten, langile asanbladetan parte hartzeagatik, eta gero BHn ibili zen. 38 urterekin Euskal Filologia ikasten hasi zen. Enrique Knör bere irakasleetako bat izan zen (aurrez bere ikasle izandakoa).

20. Euskal Filologia ikasten; irakasleak

- **Erref:** ARB-038/024
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:43:53. **Bukatu:** 00:47:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Euskal Filologia seminarioan zegoen. 2. txandakoa da bera. Koldo Mitxelena irakaslea oso jakintsua zen, baina zaila zen hari segitzea. Jon Juaristik Espainiako literatura erakusten zien, eta euskarak ez zeukala literaturarik esaten zien. Gaztelania eta latina ere ematen zuten. Pello Salaburu, Lakarra...

21. Euskal Filologiako ikasleak eta apunteak

- **Erref:** ARB-038/025
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:47:48. **Bukatu:** 00:50:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Euskal Filologia berarekin batera ikasi zutenak aipatzen ditu. Patxi Zubizarreta... Apunteekin nola moldatzen ziren, denen artean.

22. Juan Bautista Gamiz taldearen sorrera, AEK-ren aurrekaria

- **Erref:** ARB-038/026
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:50:35. **Bukatu:** 00:53:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Juan Bautista Gamiz taldea sortu zuten euskara irakasleek, AEK-ren aurrekaria. Metodologia bat sortu zuten. Gero eta ikasle gehiago zituzten, eta beste probintzia batzuekin batu zirenean sortu zen AEK.

23. AEK-n lanean

- **Erref:** ARB-038/027
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:53:03. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

AEK-ren sorreran egoteaz aparte, bertan lanean ere ibili zen. AEK eta IKaren arteko ika-mikak. Euskal Filologia ikasi ostean ere jarraitu zuen AEKn: inspektorea joaten zenean, bera zen tituludun bakarra.

24. Langile mugimenduan buru-belarri; martxoaren 3aren aurreko giroa

- **Erref:** ARB-038/029
- **Iraupena:** 0:05:23. **Hasi:** 00:56:04. **Bukatu:** 01:01:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Langile mugimenduan sartuta ibili zen buru-belarri, baina gero utzi egin zuen. Sindikatuak, grebak... martxoaren 3ko sarraskia ere gertutik ezagutu zuen. Grebak zergatik ziren azaltzen du. Sindikatuak ez ziren legezkoak. Plataforma bat sortu zuten soldata igoera eta lanordu gutxiago egitea lortzeko. Martxoaren 3aren aurreko grebak eta geldialdiak.

25. BH lantegiko lehenengo langile asanbladak

- **Erref:** ARB-038/030
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:01:27. **Bukatu:** 01:03:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

Laburpena:

BH lantegian zebilen lanean, sasoi horretan. Grebak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Enkargatuari kontra egin zion. Lehenengo asanbladak.

26. Martxoaren 3ko sarraskia eta ondorioak

- **Erref:** ARB-038/031
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:03:59. **Bukatu:** 01:07:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Lantegietan enfrentamendu handiak zeuden, eta ez zieten asanbladetan langileen ordezkariak aukeratzen utzi nahi. Martxoaren 3an erabateko greba egin zuten Gasteizen. Polizia tiroka eta ke-poteak botatzen hasi zen. Harrika erantzun zuten. 5 lagun hil zituzten eta 100dik gora atxilotu. Ondoren, sindikatuak legeztatu egin zituzten.

27. Martxoaren 3ko sarraskia eta hiletak

- **Erref:** ARB-038/032
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:07:09. **Bukatu:** 01:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Martxoaren 3an balak belarri ondotik pasatu zitzaizkion. Ocio bere ondoan bota zuten. Hildakoak 5 izan ziren, baina gehiago izan zitezkeen. Hileta jendetsuak. Hitzarmen guztiak lortu zituzten, baina tartean hildakoak egon behar horretarako.

28. Emakumeen borroka langile mugimenduan

- **Erref:** ARB-038/034
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:11:21. **Bukatu:** 01:13:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Inportanteena bere ustez emakumeen parte-hartzea izan zen, langileen mugimenduan beren eskubideak eskatzen hasi zirela.

29. Burgosko prozesua

- **Erref:** ARB-038/035
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 01:13:01. **Bukatu:** 01:16:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Burgosko prozesua gertatu zenean, Tximist lantegian zegoen lanean. Juanito Zelaia ugazabak langileei grebara ateratzeko esan zien; euskaltzalea zen. Mario Onaindiarekin harremanetan zegoen Razkin, eta Burgosko prozesuan hiru heriotza-zigor jarri zizkioten Onaindiari, ETAko buruetako bat izaki. Amnistia nola iritsi zen.

30. Araotzen barnetegia egin, eta denak atxilotuta

- **Erref:** ARB-038/036
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 01:16:37. **Bukatu:** 01:20:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Araotzen (Oñatiko auzo bat) barnetegi bat antolatu zuten, euskara irakasteko. Bukatu zenean, Guardia Zibila joan zitzaien atxilotzera. Bera Gasteizen atxilotu zuen Polizia Nazionalek.

31. Gasteizko kartzelatik ihes egiteko prest

- **Erref:** ARB-038/037
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 01:20:23. **Bukatu:** 01:23:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Kartzelara eraman zituzten, baina ez denbora askorako. Ihes egiteko modua pentsatu zuten, eta dena prestatu. Franco joan zen Gasteizera, eta odol deliturik ez zutenak libre utzi zituzten.

32. Osakidetzako Euskara Zerbitzuan lanean

- **Erref:** ARB-038/039
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:24:10. **Bukatu:** 01:26:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak

Laburpena:

Osakidetzako Euskara Zerbitzuan atera zuen plaza, eta handik hartu zuen erretiroa. Itzultzaile moduan ibili zen aurretik.

33. Euskararen egoera Gasteizen, 60ko hamarkadaren bukaeran

- **Erref:** ARB-038/040
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:26:01. **Bukatu:** 01:29:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>60ko hamarkadaren bukaeran euskararen egoera eskasa zen Gasteizen. Euskara goraka joaten ikusi dute. Euskaltegiak eta ikastolak, Euskal Filologiako fakultatea, B eta D ereduak ikastetxe publikoetan...</p>

34. Gasteizen euskaraz bizitzea gaur egun

- **Erref:** ARB-038/041
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:29:23. **Bukatu:** 01:32:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gasteizen euskaraz bizitzea oraindik ez da erraza, baina berak lehen hitza euskaraz esaten du beti. Osakidetzan ere euskaraz egiten zuen. Erantzun txarrak ere jaso izan ditu, baina gero eta gutxiago dira. Euskalduntze-prozesua Osakidetzan.

35. Kalean euskara gero eta gehiago, Gasteizen

- **Erref:** ARB-038/042
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:32:12. **Bukatu:** 01:33:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Kalean gero eta gehiago entzuten da euskara. Lehen beraiek seinalatuak ziren.

36. Arbizuko hitanoa mantendu du

- **Erref:** ARB-038/044
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:33:14. **Bukatu:** 01:35:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Euskara ezinbestekoa da Razkinentzat. Seme-alabei hika hitz egiten die. Lehen hitza euskaraz egin, eta sorpresa politak hartzen ditu. Arbizuko euskara mantendu du, eta transmititu.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com